

Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA

3463

AGINDUA, 2007ko maiatzaren 31koa, Herrizaingo sailburuarena, Ertzaintzako funtzionarioen lanbide-kreditaziorako elementuei eta lanbide-eskala eta -kategorien bereizgarriari buruzkoa.

Zerbitzuaren barruan zein lanbide-maila dagokien adierazteko, Ertzaintzako kide guztiek plaka-ikurra eta identifikazio profesionaleko txartel bana izaten dute. Horrek duen garrantzia dela-eta, behar adinako segurtasun-berme tekniko eta juridikoa duten egiaztapen-elementuak erabili behar dira; hau da, arauz ezarritako baldintzak bete behar dituzte elementu horiek.

Bestalde, Ertzaintzako kideak identifikatzeko beste elementuez gain, identifikazio-txarteletan azaltzen diren eskala eta kategoriari buruzko bereizgarri espezifikoak ere arautu behar dira. Hori dela-eta, kategoriak eta eskalak bereizteko, kolore eta barretan oinarritutako sistema berri bat ezarri da. Ezaugarri horiek azalduko dira bularreko ikurretan eta baita haritz-hosto sinbolikoa izaten duen uniformearen sorbaldakoetan ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriko lehenengo paragrafoak ematen du arau hau egiteko ahalmena, izan ere horrek Herrizaingo Sailari ematen baitio lanbide-kreditaziorako bitartekoak eta kategorien bereizgarriak ezartzeko betebeharra, horrela Ertzaintza osoarentzako elementu homogeenak berma ditzan. Hortaz, agindu honetako xedapen guztiak Ertzaintzaren zerbitzu, unitate eta atal guztiei aplikatu beharko zaizkie, eta baita funtzional ki foru-aldundi bakoitzaren menpe dauden Miñoi, Foral eta Mikeleteei ere.

Ondorioz, foru-aldundiei entzun eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea eta eremua subjektiboa.

1.— Ertzaintzako kideen lanbide-txartela eta plaka-ikurra arautzea da agindu honen helburua.

Honako bereizgarriak ere arautzen ditu: lanbide-eskala eta -kategoria adierazteko, uniformeen bularreko ikurretan eta sorbaldakoetan azaltzen diren bereizga-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3463

ORDEN de 31 de mayo de 2007, del Consejero de Interior, sobre elementos de acreditación profesional de los funcionarios y las funcionarias de la Ertzaintza, así como sobre los distintivos de la escala y categoría profesional.

Con la finalidad de acreditar su condición profesional con ocasión del servicio, todos los miembros de la Ertzaintza disponen de una placa-emblema y de un carné de identificación profesional. La trascendencia de ello aconseja el uso de elementos de acreditación que cuenten con suficientes garantías de seguridad, no sólo técnica, sino también jurídica, es decir, según unas características fijadas reglamentariamente.

Por otro lado, y junto con otros elementos identificativos como miembros de la Ertzaintza, son objeto de regulación los distintivos específicos correspondientes a la escala y categoría profesional que, asimismo, figuran en el carné de identificación. Para ello, se establece un nuevo sistema identificador de categorías y escalas basado en colores y barras tanto en el emblema de pecho como, acompañando a la simbólica hoja de roble, en las hombreras del uniforme.

El título habilitante de la presente norma se encuentra en la Disposición Adicional decimotercera, apartado primero, de la citada Ley de Policía del País Vasco, que encomienda al Departamento de Interior la determinación de los medios de acreditación profesional y los distintivos de la categoría con la finalidad de garantizar ciertos elementos homogéneos en toda la Ertzaintza; siendo por ello las disposiciones contenidas esta Orden de aplicación a todos los servicios, unidades y secciones de la Ertzaintza, incluidas en estas últimas las de Miñones, Forales y Mikeletes dependientes funcionalmente de la Diputación Foral correspondiente.

En su virtud, oídas las Diputaciones Forales y habiendo recabado el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto y ámbito subjetivo.

1.— Es objeto de la presente Orden regular el carné profesional y la placa-emblema de los miembros de la Ertzaintza.

Asimismo, son objeto de regulación los distintivos de la escala y categoría profesional, que figurarán en el emblema de pecho y en las hombreras del uniforme, y

riak, eta Ertzaintzaren zenbait bereizgarri orokor eta berezi.

2.– Arau honetan aurreikusitako guztia Ertzaintzako zerbitzu eta unitate guztietako kideei aplikatuko zaie, eta baita Miñoi, Foral eta Mikeleteen ataletako kideei ere.

2. artikulua.– Kreditazio-elementuak.

1.– Identifikazio profesionaleko txartelak eta plaka-ikurrak egiaztatzen dute titularra agintaritzaren agente dela, hain zuzen ere Ertzaintzako kidea. Bi elementuak agiri publikoak dira, titularrak bakarrik erabili ditzake eta ezin zaizkio beste inori eman.

2.– Zerbitzu aktiboko edo bigarren jarduerako administrazio-egoeran dauden Ertzaintzako funtzionario guztiak edukiko dituzte identifikazio profesionaleko txartela eta plaka-ikurra, eta aipatutakoek izango dute halakoak erabiltzeko baimena. Alabaina, Segurtasun sailburuordeak, funtzionarioa aipatutako administrazio-egoeraren batean egonda ere, kreditazio-elementuak kentzea erabaki dezake, titularra polizia-zereginetatik aldenduta denbora luzez egongo dela aurreikusten bada edo herritarren segurtasunerako arriskua sortzen duela antzematen bada.

3.– Ertzaintzako funtzionario izateari utziz gero edo zerbitzu aktibo edo bigarren jardueratik bestelako administrazio-egoeraren batera pasatuz gero, lanbide-txartela eta plaka-ikurra entregatu beharko dira. Eginkizun-gabetezko irmoak edo behin-behinekoak dirauen bitartean kreditazio-elementuak edukitzen jarraitzeko, Segurtasun sailburuordearen baimena beharko da, eta sailburuordeak salbuespeneko egoeretan bakarrik emango du baimen hori.

4.– Identifikazio profesionaleko txartela da titularra Ertzaintzako kide gisa identifikatzeko balio duen txartel bakarra. Agiri hori bertan azaltzen den datan iraungitzen da. Hortaz, txartela iraungi delako edo bestelako arrazoientatik berritzeko, ordezkatu beharreko edo baliogabetutako txartela entregatu egin behar da.

5.– Identifikazio profesionaleko txartelaren diseinua eta ezaugarriak agindu honetako I. eranskinean azaltzen dira. Eta, plaka-ikurraren diseinua eta ezaugarriak, II. eranskinean.

3. artikulua.– Bereizgarri orokorrak.

1.– Uniformea janzten duten Ertzaintzako funtzionarioek, dagokien lanbide-escala eta -kategoriaen bereizgarriak eramango dituzte itsatsita.

Lanbide-escala eta -kategoriaen bereizgarri horiek uniformeetako bularreko ikurrean eta sorbaldakoetan jarriko dira.

2.– Sorbaldakoen eta bularreko ikurren diseinua eta ezaugarriak agindu honetako III. eranskinean azaltzen dira.

determinados distintivos generales y singulares de la Ertzaintza.

2.– Las previsiones de esta norma serán de aplicación a todos los miembros de los diferentes servicios y unidades de la Ertzaintza, así como a los adscritos a sus secciones de Miñones, Forales y Mikeletes.

Artículo 2.– Elementos de acreditación.

1.– El carné de identificación profesional y la placa-emblema acreditan la condición de agente de la autoridad que, como miembro de la Ertzaintza, corresponde a su titular. Ambos elementos tienen carácter de documento público y su uso es personal e intransferible.

2.– Estarán provistos de carné de identificación profesional y placa-emblema y estarán autorizados para su uso, todas y todos los funcionarios de la Ertzaintza en situación administrativa de servicio activo o segunda actividad. No obstante, el Viceconsejero de Seguridad, aun encontrándose el funcionario o la funcionaria en alguna de las mencionadas situaciones administrativas, podrá acordar la retirada de los elementos de acreditación de preverse la cesación prolongada en el tiempo del ejercicio de las funciones policiales o de apreciarse riesgos para la seguridad ciudadana.

3.– La pérdida de la condición de funcionario o funcionaria de la Ertzaintza, así como el pase a situación administrativa distinta del servicio activo o segunda actividad, obligarán a la entrega del carné profesional y placa-emblema. Únicamente la autorización expresa del Viceconsejero de Seguridad, por concurrir circunstancias excepcionales que así lo justifiquen, permitirá la conservación de dichos elementos de acreditación durante la suspensión de funciones, bien sea la misma firme o provisional.

4.– El carné de identificación profesional es el único carné válido para identificar a su titular como miembro de la Ertzaintza. Dicho documento caduca en la fecha inscrita en el mismo, y su renovación por este motivo u otra circunstancia obliga a entregar el documento sustituido o invalidado.

5.– El diseño y características del carné de identificación profesional figuran en el anexo I de la presente Orden. El diseño y características de la placa-emblema figuran en el anexo II de la presente Orden.

Artículo 3.– Distintivos generales.

1.– Los funcionarios y las funcionarias de la Ertzaintza que vistan uniforme llevarán sobre el mismo los distintivos de la escala y categoría profesional a la que pertenezcan.

Dichos distintivos de escala y categoría profesional figurarán en el emblema de pecho y en las hombreras del uniforme.

2.– El diseño y características de las hombreras y de los emblemas de pecho se recoge en el anexo III de la presente Orden.

3.– Uniformearen ezkerreko mahukaren goiko alderdiko kanpoaldean, agindu honetako IV. eranskinean adierazitako diseinua eta ezaugarriak dauzkan bereizgarria egongo da.

4. artikulua.– Bereizgarri bereziak.

1.– Miñoi, Foral eta Mikeleteen atalen kasuan, aurreko artikuluko lehenengo paragrafoan adierazitako bularreko ikurrean azaltzen den Ertzaintzaren ezkutu bereziak aldaketatxo batzuk izango ditu, honakoak hain zuzen ere:

Erdiko ezkutuaren ordez, lurralde historiko bakoitzaren foru-arautegiarekin bat etorritik dagokion ezkutuazalduko da.

Ertzaintza hitzaren ordez, hurrenez hurren «Miñoiak», «Mikeleteak» eta «Foralak» edo «Miñones» «Mikeletes» eta «Forales» azalduko da. Lurralde historiko bakoitzean dagokion organoak erabakiko du euskarazko ala gaztelaniazko grafia erabiliko den.

2.– Ertzaintzako Ekintzetarako Baliabideen Alorra osatzen duten unitate eta operazio-taldeetako kideek laneko uniformearen bular aldean bereizgarri bereziak eramango dituzte, agindu honetako V. eranskinean zehaztutakoarekin bat datozenak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ertzaintzan sartzeko ikasleen eta Fakultatiboen eta Teknikariaren eskalan sartzeko ikasleen uniformeetako sorbaldakoen eta bularreko ikurren diseinua agindu honetako III. eranskinean azaltzen da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Segurtasun Sailburuordetzak zehaztuko du noizko kendu eta ordezkatu beharko diren agindu honetako ezaugarri teknikoak bete gabe gaur egun erabiltzen diren bereizgarri eta elementuak.

AZKEN XEDAPENA

Segurtasun sailburuordeari ahalmena ematen zaio agindu honetan ezarritakoa aplikatzeko eman behar diren jarraibideak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 31.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

3.– En la parte superior exterior de la manga izquierda del uniforme figurará un distintivo con el diseño y características señaladas en el anexo IV de la presente Orden.

Artículo 4.– Distintivos singulares.

1.– En el caso de las Secciones de Miñones, Forales y Mikeletes en el emblema de pecho a que se refiere el apartado primero del artículo anterior, el escudo genérico de la Ertzaintza tendrá las siguientes variaciones:

El escudo central será sustituido por el que corresponde a cada Territorio Histórico de acuerdo con su normativa foral.

La palabra Ertzaintza será sustituida, respectivamente, por la de «Miñones», «Mikeletes» y «Forales» o «Miñoiak», «Mikeleteak» y «Foralak». La grafía en euskera y/o castellano será determinada por los órganos correspondientes de cada Territorio Histórico.

2.– Los miembros de las Unidades y Grupos Operacionales en la que se estructura la División de Recursos Operativos de la Ertzaintza portarán sobre el pecho de los uniformes de trabajo distintivos singulares conforme se detalla en el anexo V de la presente Orden.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El diseño de las hombreras y emblemas de pecho del uniforme de los alumnos y las alumnas para el ingreso en la Ertzaintza, así como en su escala de Facultativos y Técnicos, será el recogido en el anexo III de la presente Orden.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El Viceconsejero de Seguridad determinará las fechas en que deban quedar retirados y sustituidos los actuales elementos y distintivos que difieran en sus características técnicas de los previstos en la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

Se faculta al Viceconsejero de Seguridad para dictar las instrucciones precisas para la aplicación de lo dispuesto en la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2007.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.


I. ERANSKINA / ANEXO I
 IDENTIFIKAZIO PROFESIONALEKO TXARTELA / CARNÉ DE IDENTIFICACIÓN PROFESIONAL

TXARTELAREN ESKEMA
 (NEURRIAK MILIMETROTAN)
 ESQUEMA CONSTRUCTIVO
 (MEDIDAS EN MILÍMETROS)

AURREALDEA/ANVERSO



ATZEALDEA/REVERSO



Identifikazio profesionaleko txartela PCV zuriz egina egongo da, eta 85,6 x 53,8 milimetroko neurriak eta ertz borobilduak izango ditu.

Aurrealdean ondorengo datuak bilduko ditu, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: titularraren argazkia arauzko uniformearekin jantzita, eta Eusko Jaurlaritzaren anagrama argazkiaren gainean; holograma; «POLICIA-POLICE» hitzak jartzen dituen laukitxoak; «ERTZAINZA» hitza jartzen duen laukitxoak; titularraren lanbide-kategoria adierazten duen laukitxoak; titularraren lanbide-zenbakia; Euskadiko ikurrina; txartelaren jaulkipen- eta iraungipen-datak.

Atzealdean, berriz, izen-abizenak, argazkia, lanbide-zenbakia, titularraren sinadura eta Ertzaintzaren ezkurtua azalduko dira.

El carné de identificación profesional estará confeccionado en PVC de color blanco y tendrá dimensiones de 85,6 x 53,8 milímetros con los cantos redondeados.

En su anverso, figurarán los siguientes datos citados de izquierda a derecha y en sentido descendente: fotografía del titular con uniforme reglamentario, con anagrama del Gobierno Vasco sobre la fotografía; holograma; recuadro con la leyenda «POLICIA-POLICE»; recuadro con la leyenda «ERTZAINZA»; recuadro con la categoría profesional del titular; número profesional del titular; bandera de Euskadi; fecha de expedición y fecha de caducidad.

Al dorso figurarán el nombre y apellidos, fotografía, número profesional, firma del titular y escudo de la Ertzaintza.

II. ERANSKINA / ANEXO II
PLAKA-IKURRA / PLACA-EMBLEMA

AURREALDEA/ANVERSO



ATZEALDEA/REVERSO



Kolore korporatiboak / Colores corporativos:

PANTONE COATED 177 CVC / PANTONE COATED 177 CVC
PANTONE COATED 280 CVC / PANTONE COATED 280 CVC
PANTONE COATED BELTZA. / PANTONE COATED NEGRO.

Plaka-ikurra PCV zuriz egina egongo da, eta 85,6 x 53,8 milimetrotako neurriak eta ertz borobilduak izango ditu.

Aurrealdean ondorengo datuak bilduko ditu, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Ertzaintzaren ezkurtua; «POLICIA-POLICE» hitzak; Ertzaintzaren ezkurtuaren marrazkia egiten duen holograma; Euskadiko ikurrina.

Atzealdean, eta goitik behera, titularraren kreditazio ofizialaren historikoa, Segurutasun sailburuordearen sinadura eta titularraren argazkia eta indarrean duen lanbide-zenbakia azalduko dira.

La placa-emblema estará confeccionada en PVC de color blanco y tendrá dimensiones de 85,6 x 53,8 milímetros con los cantos redondeados.

En su anverso, figurarán los siguientes datos citados de izquierda a derecha y en sentido descendente: escudo de la Ertzaintza; leyenda «POLICIA-POLICE»; holograma con el escudo de la Ertzaintza; bandera de Euskadi.

Al dorso y en sentido descendente, constará la relación del histórico de los diferentes números profesionales que haya tenido su titular, firma del Viceconsejero o Viceconsejero de Seguridad, fotografía y vigente número profesional del titular.

III. ERANSKINA SORBALDAKOAK ETA BULARREKO IKURRA

A) BULARREKO IKURRAREN DESKRIBAPENA

57 x 90 mm-ko neurriak ditu eta hiru zatiz osatua dago:

- Goiko zatiaren oinarria Ertzaintzaren koloreak di-tuen ezkutu profesionalak osatzen du. Ezkutuaren atzea urre edo zilar kolorekoa izango da eskala eta kategoriaren arabera, eta ezkutua ikurraren kanpoko ertzetik 3 mm-ra dago kokatuta.

- Erdiko aldea, eskala eta kategoriaren arabera urre edo zilar kolorekoa izango den 1,5 mm-ko lodierako orla edo ertz batekin profilatuta dago, ikurraren kanpoko ertzetik 3 mm-ra, eta goiko zatian azaltzen den Ertzaintzaren ezkutu profesionalaren beheko ertzetik mm 1era.

Erdiko zati honen bereizgarria eskala eta kategoriaren arabera angelu-kopuru eta kolore desberdinak izango dituela da. Ertzaintzan eta Fakultatiboen eta Teknikariaren eskalan sartzen diren ikasleen ikurrek ez dute halakorik izango.

- Beheko zatia, eskala eta kategoriaren arabera urre edo zilar kolorekoa den eta 1,5 mm-ko zabalera duen orla edo ertz batez inguratutako 51 x 12 mm-ko lauki batek osatzen du. Lauki hori ikurraren kanpoko ertzetik 3 mm-ra eta erdiko zatitik mm 1era dago.

Bularreko ikurra jartzeko, ikurraren beheko zatitik 90 mm-ko mihi triangeluarra ateratzen da. Mihiaren muturrean, ikurraren goiko zatiko atzealdearekin lotzen den krokagailua dago, ikurra Ertzaintzaren jantziek bular aldean izaten duten zerrendan erraz itsasteko.

B) SORBALDAKOAREN DESKRIBAPENA

161 x 57 mm-ko neurriak ditu. Oinarriak mozketa zuzena du, eta beste muturra 90ºko angeluan bukatzen da.

Sorbaldako osoa kanpoko aldetik 3 mm-ra inguratuz, 4 mm-ko zabalera duen galoitxo bat dauka, eskala eta kategoriaren arabera urre edo zilar kolorekoa izango dena.

Angelua eginez bukatzen den muturrean, sorbaldakoaren azaleraren erdian, botoi bat agertzen da inprimatuta, eskala eta kategoriaren arabera urre edo zilar kolorekoa den haritz-hosto baten marrazkiarekin.

Sorbaldakoaren azaleran haritz-hosto gorri bat dago inprimatuta.

Bereizgarri gisa, zati zuzenean eskala eta kategoriaren arabera angelu-kopuru eta kolore desberdinak azaltzen dira. Ertzaintzan eta Fakultatiboen eta Teknika-

ANEXO III HOMBRERAS Y EMBLEMA DE PECHO

A) DESCRIPCIÓN EMBLEMA DE PECHO

Tiene unas dimensiones de 57 x 90 mm, estando distribuido en tres partes diferenciadas:

- La parte superior tiene como base el escudo profesional de la Ertzaintza, respetando sus colores, con el fondo en oro o plata según escala y categoría, y situado a 3 mm del contorno exterior del emblema.

- La parte central está perfilada por una orla o reborde de 1,5 mm de grosor en color oro o plata según la escala y categoría, situada a 3 mm del contorno externo del emblema, y por arriba a 1 mm. del contorno inferior de escudo profesional de la Ertzaintza.

Esta parte central lleva como elementos distintivos ángulos en diferente número y color según escala y categoría, salvo en el caso de los alumnos y las alumnas para ingresar en la Ertzaintza y los alumnos y las alumnas para ingresar en la escala de Facultativos y Técnicos.

- La parte inferior consiste en un recuadro de 51 x 12 mm. bordeado por una orla o reborde de 1,5 mm. de grosor, en color oro o plata según la escala y categoría, situado 3 mm. del contorno exterior del emblema, y a 1 mm. de la parte central del emblema.

Para la colocación del emblema de pecho, de su parte inferior se prolonga una lengüeta de 90 mm. de forma triangular, en cuyo extremo dispone de un dispositivo que se engancha con la parte superior trasera del emblema, de modo que permite el enganche del emblema a la tira de la que disponen diferentes prendas de la Ertzaintza en el pecho.

B) DESCRIPCIÓN HOMBRERA

Tienen unas dimensiones de 161 x 57 mm., con base de corte recto y el otro extremo acabado en ángulo de 90º.

Bordeando toda la hombrera, a 3 mm. de sus límites externos, lleva un sontanche o galoncillo de 4 mm. de ancho, en color oro o plata según la escala y categoría.

En el extremo acabado del ángulo, centrado sobre la superficie de la hombrera se ubica impreso un botón con una hoja de roble, en color oro o plata según la escala y categoría.

Sobre la superficie de la hombrera va impresa una hoja de roble en color rojo.

Como elemento distintivo en la parte recta lleva como elementos distintivos ángulos en diferente número y color según escala y categoría, salvo en el caso de los

rien eskalan sartzen diren ikasleen sorbaldakoek ez dute halakorik izango.

Sorbaldakoa Ertzaintzaren jaka gorrian itsasteko, sorbaldakoaren azpialdeak 10 mm-ko zabalera duen oihalezko zumitza dauka, luzeran zentratua. Horren muturrean krisketa baten arra dago eta sorbaldakoaren beste muturrean emea.

Gainera, trabeska, 13 mm-ko zabalera xingolak izango ditu, alkandora, jertse eta abarren sorbaldetan jarri ahal izateko.

C) ESKALA ETA KATEGORIEN ARABERAKO IDENTIFIKAZIOA

Ondorengo koadroan azaltzen dira, kolore- eta angelu-sistema batean oinarrituta, Ertzaintzako funtzionarioen eskalak eta eskala bakoitzeko kategoriak bereizteko, sorbaldakoetan eta bularreko ikurretan erabiltzen diren ezaugarri eta berezitasunak.

alumnos y las alumnas para ingresar en la Ertzaintza y los alumnos y las alumnas para ingresar en la escala de Facultativos y Técnicos.

Para su anclaje en la chaqueta roja de la Ertzaintza, el revés de la hombrera dispone, de un fleje de tela de 10 mm. de ancho centrado longitudinalmente, en cuyo extremo lleva incorporado el macho de un broche, estando la hembra en el extremo de la hombrera.

Igualmente, llevará transversalmente, sendos hiladillos de 13 mm. de ancho, que sirven para ser montada sobre la hombrera de la camisa, jersey, etc.

C) IDENTIFICACIÓN POR ESCALAS Y CATEGORÍAS

En el siguiente cuadro, y en función de un sistema basado en colores, y ángulos, se definen las características y especificaciones de las hombreras y los emblemas de pecho para las diferentes escalas de los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza, así como sus categorías dentro de ellas.



Kategoria	Azpiko kolorea	Identifikazio-mota (kopurua – identifikazio-mota – kolorea)	Ertzaren kolorea
ERTZAINZAN SARTZEKO IKASLEA			
	Beltza	Angelurik gabe	Zilarra
FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALAN SARTZEKO IKASLEA			
	Grisa	Angelurik gabe	Zilarra
OINARRIZKO ESKALA			
Agentea	Beltza	Angelu zuri 1	Zilarra
1. mailako agentea	Beltza	2 angelu zuri	Zilarra
INSPEKZIO ESKALA			
Ofizial ondokoa	Beltza	3 angelu zuri	Zilarra
Ofiziala	Beltza	4 angelu zuri	Zilarra
ESKALA EXEKUTIBOA			
Komisario ondokoa	Zuria	Angelu beltz 1	Urrea
Komisarioa	Zuria	2 angelu beltz	Urrea
GOI-MAILAKO ESKALA			
Intendentea	Zuria	3 angelu beltz	Urrea
Superintendentea	Zuria	4 angelu beltz	Urrea
FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALA			
D taldea	Grisa	Angelu zuri 1	Zilarra
C taldea	Grisa	2 angelu zuri	Zilarra
B taldea	Grisa	Angelu zuri 1	Urrea
A taldea	Grisa	2 angelu zuri	Urrea

<i>Categoría</i>	<i>Color fondo</i>	<i>Tipo de identificación (número – tipo de identificación – color)</i>	<i>Color ribete</i>
<i>ALUMNO PARA INGRESAR EN LA ERTZAINZA</i>			
	<i>Negro</i>	<i>Sin ángulos</i>	<i>Plata</i>
<i>ALUMNO PARA INGRESAR EN LA ESCALA DE FACULTATIVOS Y TÉCNICOS</i>			
	<i>Gris</i>	<i>Sin ángulos</i>	<i>Plata</i>
<i>ESCALA BÁSICA</i>			
<i>Agente</i>	<i>Negro</i>	<i>1 ángulo blanco</i>	<i>Plata</i>
<i>Agente 1º</i>	<i>Negro</i>	<i>2 ángulos blancos</i>	<i>Plata</i>
<i>ESCALA INSPECCIÓN</i>			
<i>Suboficial</i>	<i>Negro</i>	<i>3 ángulos blancos</i>	<i>Plata</i>
<i>Oficial</i>	<i>Negro</i>	<i>4 ángulos blancos</i>	<i>Plata</i>
<i>ESCALA EJECUTIVA</i>			
<i>Subcomisario</i>	<i>Blanco</i>	<i>1 ángulo negro</i>	<i>Oro</i>
<i>Comisario</i>	<i>Blanco</i>	<i>2 ángulos negros</i>	<i>Oro</i>
<i>ESCALA SUPERIOR</i>			
<i>Intendente</i>	<i>Blanco</i>	<i>3 ángulos negros</i>	<i>Oro</i>
<i>Superintendente</i>	<i>Blanco</i>	<i>4 ángulos negros</i>	<i>Oro</i>
<i>ESCALA FACULTATIVOS Y TÉCNICOS</i>			
<i>Grupo D</i>	<i>Gris</i>	<i>1 ángulo blanco</i>	<i>Plata</i>
<i>Grupo C</i>	<i>Gris</i>	<i>2 ángulos blancos</i>	<i>Plata</i>
<i>Grupo B</i>	<i>Gris</i>	<i>1 ángulo blanco</i>	<i>Oro</i>
<i>Grupo A</i>	<i>Gris</i>	<i>2 ángulos blancos</i>	<i>Oro</i>

D) BULARREKO IKURRAREN ETA SORBALDAKOAREN XEHETASUN GRAFIKOA
 (INSPEKZIO ESKALAKO OFIZIALAREN EREDUAREN ARABERA)
 D) DETALLE GRÁFICO DEL EMBLEMA DE PECHO Y DE LA HOMBRERA
 (SEGÚN MODELO DE OFICIAL DE LA ESCALA DE INSPECCIÓN)

BULARREKO IKURRA / EMBLEMA DE PECHO

SORBALDAKOA/HOMBRERA



E) BULARREKO IKUR ETA SORBALDAKOEN IDENTIFIKAZIO GRAFIKOA ESKALA ETA KATEGORIAKA
 E) IDENTIFICACIÓN GRÁFICA POR ESCALAS Y CATEGORÍAS EN EMBLEMA DE PECHO Y HOMBRERAS

ERTZAINTZAN SARTZEKO IKASLEA / ALUMNO PARA INGRESAR EN LA ERTZAINTZA



FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALAN SARTZEKO IKASLEA.
ALUMNO PARA INGRESAR EN LA ESCALA DE FACULTATIVOS Y TÉCNICOS.



OINARRIZKO ESKALA / ESCALA BÁSICA

AGENTEA / AGENTE

1. MAILAKO AGENTEA / AGENTE 1º



INSPEKZIO ESKALA / ESCALA DE INSPECCIÓN

OFIZIAL ONDOKOA / SUBOFICIAL

OFIZIALA/OFICIAL



ESKALA EXEKUTIBOA / ESCALA EJECUTIVA

KOMISARIO ONDOKOA / SUBCOMISARIO

KOMISARIOA/COMISARIO



GOI-MAILAKO ESKALA / ESCALA SUPERIOR

INTENDENTEA/INTENDENTE

SUPERINTENDENTEA/SUPERINTENDENTE



FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALA / ESCALA FACULTATIVOS Y TÉCNICOS

D TALDEA / GRUPO D

C TALDEA/ GRUPO C



B TALDEA / GRUPO B

A TALDEA / GRUPO A



IV. ERANSKINA

MAHUKAKO BEREIZGARRIA

Maukako bereizgarriak ezaugarri hauek izango ditu:

– Buruxka-erako ehundura duen kalitate handiko poliester/kotoizko nahastura malguko oihal batean inprimatutako ezkutua izango da, bihurtura eta urradurak jasaten dituen, askotan garbi daitekeena, bereizmen handiko inprimaketa ahalbidetzen duena, eta garbiketa-prozesu bortitzenak jasaten dituena.


– Oinarria beltza izango da, eta 52 x 47 mm-ko neurriak eta ezkutu forma izango ditu. Bereizgarriko goialdearen erditik hasiko da, puntan, eta pixka bat kurbatuz joango da alboetara iritsi arte. Gero harmonikoki beherantz egingo du kurba leun bat osatuz, beheko muturrera iritsi eta bi aldean arteko angelu batekin bukatzeko.

– Ezkutuaren ertz osoa urre koloreko 2,5 mm-ko zabalera orla batez inguratuta egongo da, eta horrek bereizgarriaren oinarriak duen diseinu berbera izango du.

– Barrualdea ikurrinaren koloreko laurdenez osatuta egongo da, eta 16 x 22 mm-ko neurriko E berezi beltz bat izango du.

Deskribatutako ezkutua Ertzaintzaren jantzi guztietan jarri beharko da, ezkerreko mahukan, goiko aldean mahukaren hasieratik 10 cm-ra dagoela.

Hauxe da ezkutuaren diseinua:



ANEXO IV

DISTINTIVO DE MANGA

El distintivo de manga contará con las características que se señalan a continuación:

– Será un escudo impreso sobre una mezcla flexible de alta calidad de poliéster / algodón con un tejido de espiga, altamente resistente a la torsión y al desgarro, de gran durabilidad al lavado, con una alta definición de impresión, y cuyos colores deberán aguantar los procesos de lavado más severos.

– La base será de color negro, de dimensiones 52 x 47 mm, en forma de escudo, comenzando en pico desde el centro superior del distintivo en ligera curva hasta unirse con los laterales para ir descendiendo de manera armónica en suave curva hasta el extremo inferior donde se unen para acabar en ángulo.

– El escudo estará enmarcado en todo su contorno por una orla de color oro de 2,5 mm de ancho, del mismo diseño que la base del distintivo.

– En el interior, dividido en cuarteles con los colores de la ikurrina, llevará una E característica de 16 x 22 mm en color negro.

El escudo descrito se deberá colocar en todas las prendas de dotación de la Ertzaintza, en la manga izquierda, y con el extremo superior situado a 10 cm desde el inicio de la manga.

El diseño del escudo es el que sigue:

V. ERANSKINA / ANEXO V

UNITATE ETA OPERAZIO-TALDEEN BEREIZGARRI BEREZIAK
DISTINTIVOS SINGULARES DE UNIDADES Y GRUPOS OPERACIONALES



Helikopteroen Unitatea / *Unidad de Helicópteros*



Talde Mugikorraren Unitatea / *Unidad de Brigada Móvil*



Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea
Unidad de Desactivación de Explosivos



Babes eta Esku Hartze Unitatea
Unidad de Protección e Intervención



Txakurren Unitatea / *Unidad Canina*



Seguritasun Unitatea / *Unidad de Seguridad*